

BALIO PROPOSAMENA

Canvas eredia puzzle antzerakoa da, eta landuko dugun lehenengo pieza balio proposamena deritzona da. Balorezko proposamena, funtsean, bezeroek gure enpresaren alde egiteko arrazoi nagusia da.

Gure enpresak, bezeroek kalitatezko nahiz jatorri jasangarriko produktuak eta hauetatik prestatutako gastronomiaz gozatzeko daukaten beharra asetzen du.

Gure balio nagusia kualitatiboa izango litzateke. Hau da, gure produktuaren kalitatean zentratuko gara eta ez kantitatean. Konkretuki, gure produktuen eskusibotasuna bilatu nahi dugu, gure bezeroek gure dendan erostean beste toki batean lortu ez dezaketen zerbait eskuratu dutela sentiaraztea nahi dugu. Gainera, modu honetan, inguruko baserritarrei laguntza eskainiko diegu, bertako produktuen eta ingurunearen babesa bermatuz.

